

BERDINTASUN TEKNIKARI PLAZA BETETZEKO DEIALDIA
PRAKTIKALDIAN IZENDAPENA ETA LANPOLTSA ONARTZEKO ERABAKIAREN
JAKINARAZPENA

Bergarako Udalak berdintasun teknikaria kontratatzeko edo izendatzeko egindako ohiko deialdiaren oinarriak onartu zituen 2021eko otsailaren 1ean.

Halaber deialdi berean behin behineko izendapen beharrei erantzuteko lanpoltsa osatuko zela jaso zen.

Epaimahaiak 2022ko urtarrilaren 26an egindako bileran erabaki du prozesu osoan izandako emaitzak eta erreklamazio eta errekursoaren inguruan hartu diren erabakiei emandako erantzunak kontuan izanda prozesuko puntuazio orokor hauek onartzea:

NAN	TEORIKOA	PRAKTIKOA	PSIKOTEKNIKOA	MERITUAK	GUZTIRA
72XXXX35S	11,7	31,5	35,83	16,54	95,57
23XXXX82G	15,875	25,5	39,12	2,08	82,575
72XXXX14V	13,625	26,5	34,72	6	80,845

Halaber proposatu du prozesu osoan puntuazio altuena izan duten izangaia 72XXXX35S, berdintasun teknikaria plaza betetzeko, funtzionario praktikaldian izendatzea.

Halaber proposatu du, aldi baterako berdintasun teknikari premiei erantzuteko lanpoltsa osatzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, honako hau izanik:

NAN	TEORIK	PRAKTIK	PSIKOTEK	MERITUAK	GUZTIRA
23XXXX82G	15,875	25,5	39,12	3,04	83,535
72XXXX14V	13,625	26,5	34,72	6	80,845

Hori ikusita, behin behineko alkateak 2022ko otsailaren 21ean emandako dekretu bidez honako hau erabaki duela jakinarazten da:

LEHENENGOA: Epaimahaiak egindako ebazpen proposamenak onartzea eta horregatik:

72XXXX35S, berdintasun teknikaria plaza betetzeko, funtzionario praktikaldian izendatzea.

Praktiketako eta prestakuntzako epealdiaren iraupena hamabi (12) hilabetekoa izango da.

Halaber, prozesua gainditu duen izangairi gogoraraztea izendapena egin aurretik deialdia arautzen duten oinarrietako zortzigarren eta bederatzigarren puntuetan jasotakoak betetzea dagokiola eta horrela egin ezean bertan jasotakoa beteko duela udalak.

BIGARRENA: Aldi baterako berdintasun teknikari premiei erantzuteko lanpoltsa osatzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, honako hau izanik:

1.- NAN: 23XXXX82G 83,535 puntu

2.- NAN: 72XXXX14V 80,845 puntu

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da ebazpen honekin batera eta urtebeteko balioa izango du –indarrean jartzen denetik kontatzen hasita–, baina urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez ere beste lau urtez, baldin eta Antolakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea interesatuari eta udaleko iragarki taulan eta WEB orrian argitaratzea.”

Ebazpenaren aurkako bideak

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea izanik, jakinarazpen hau argitara eman den hurrengo egunetik hasita.**

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

**Jakinarazpen hau 2022ko otsailaren 24an argitara eman da udaleko iragarki taulan eta Bergarako udalaren web orrian.*

Bergara, 2022ko otsailaren 24a

Epaimahaiko idazkaria

